



ELHUYAR
fundazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SA. A
Euskal Herriko Fundazioen Elkartea
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Pagariko de Fundazioen Elkartea

ELHUYAR FUNDAZIOAREN PATRONATUAREN BILERA-AGIRIAREN ZIURTAGIRIA

Nik, Alfontso Mujika Etxeberriak, Elhuyar Fundazioaren idazkaria naizen aldetik, hau

ZIURTATZEN DUT

I- Usurbilen, 2004ko abenduaren 15ean, goizeko 11etan, Elhuyar Fundazioaren egoitzan egindako Patronatuaren bileraren agiriak dioela Elhuyar Fundazioaren Patronatuaren bilera egin zela, besteak beste honako gai honi buruz jarduteko:

(...) 4- Egoitzaren helbidearen aldaketa

Bileraren lehendakari gisa José María Rodríguez Ibañek eta idazkari gisa Alfontso Mujikak jardun zuten, Fundazioaren Patronatua kargu horien jabe baitira. Bilerako lehendakariak Patronatuaren bilera baliozkoa zela azaldu eta bilerari hasiera eman zion, Patronatuko 10 kide bertan zirela. Bileran zeudenetako inor ez zen aurka agertu, eta inork ez zuen eskatu bilera-agirian adierazpen berezirik sartzeko. Ondoren, besteak beste, honako akordio hau hartu zen aho batez:

AKORDIOA

Elhuyar Fundazioak egoitza berria erosi eta egokitu du lantalde osoa bertara eramateko eta jarduera guztiak bertatik gauzatzeko. Hori dela eta, Fundazioaren egoitza ofiziala aldatzea erabakitzen da. Aldaketa horrek Fundazioaren Estatutuen 4. artikulua aldaketa dakar. Ondorioz, Estatutuen 4. artikulua berria hau izango da:

"4. artikulua. - Helbidea

Fundazioaren helbidea honako hau izango da: Zelai Haundi 3, Osinalde poligonoa, 20170 Usurbil (Gipuzkoa).



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

A 5445364




Patronatuak helbidea aldatu ahal izango du. Horretarako, Estatutuak aldatu egin beharko ditu, eta Protektoratuari jakinaraziko dio berehala, indarrean dauden legeetan zehazten den moduan."

II- Falta diren erabakiek ez dutela ziurtagiri honetan jasotakoetan inolako eraginik.

Eta dagozkion ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut Uurbilen, 2004ko abenduaren 21ean, Patronatuaren lehendakariaren oniritziak.

Lehendakariak oniritzia
Jose Maria Rodriguez Ibabe



Idazkaria
Alfontso Mujika Etxeberria